


Agur, agur



Igandea da eta Michael etxera joango da. Anak Miarritzeko aireportura lagundu du. Guk ere agurtuko ditugu biak. Hemendik aurrera beren laguntzarik gabe ikasiko dugu. Agur, lagunak!

Horretaz aparte, unitate honetan orain arte ikasitakoaren errepaso txiki bat egingo dugu eta azken saioan gure biografia txikia idatziko dugu.

Llegó el domingo y Michael se va a casa. Ana le ha acompañado al aeropuerto de Biarritz. Nosotros también despediremos a nuestros amigos, pues a partir de la siguiente lección continuaremos aprendiendo sin su compañía. ¡Adiós amigos!

Además de todo ello, repasaremos lo aprendido hasta ahora y al final de la unidad aplicaremos todo ello para escribir nuestra biografía.



entzumena

Igandea da eta Michael etxera joango da. Anak Miarritzeko aireportura lagundu du. Entzun grabazioa eta galderak erantzun.

Llegó el domingo y Michael se va a casa. Ana le ha ayudado al aeropuerto de Biarritz. Escucha la grabación y responde a las preguntas.

Aireportuko agurra

- Non daude Ana eta Michael?
- Zergatik joan dira aireportura?
- Zer ordutan aterako da hegazkina?
- Zer ordutan iritsiko da Berlina?
- Zergatik hainbeste ordu?
- Zenbat denbora geratuko da Ana Euskal Herrian?
- Zertarako erabiliko dute korreoa eta telefonoa?
- Zertarako gogoia du Anak?
- Zertarako behar du dirua Anak?





ariketa

Orduak

Hegazkinez ibili nahi izanez gero, orduak jakitea beharrezkoa da. Idatzi: Zer ordutan irtengo da hegazkina?


Si vas a montar en avión te conviene no llegar tarde al aeropuerto. Fijate en el panel horario y di a qué hora despegará el avión.



Zer ordutan irtengo da?

Bartzelonako hegazkina
Iruñeko hegazkina
Madrileko hegazkina
Valentziako hegazkina
Pariseko hegazkina

Nekatu garuna!!!




Bartzelonako hegazkina bederatziak hogeita bost gutxitan irtengo da aireportutik. Hegazkinak ordu bat behar du irteteko. Zer ordutan iritsiko da?

Madrilera joateko ordu bat behar du hegazkinak; baina, zoritxarrez, ordu erdiko atzerapena izango du. Zer ordutan iritsiko da Madrila?

Parisera joateko ordu bat behar du hegazkinak; baina, Parisko aireportuan laino handia dagoelako, ordu bat pasatu du lur hartzeko. Zer ordutan irten dira bidaiariak hegazkinetik? Zer ordu da hori Argentinan?

Orain asmatu antzeko beste bi buruketa, binaka.
 Ahora escribid un par de problemas y dádselos a vuestros compañeros,-as.



Gogoratu!

Aditza

NOR		NOR-NORK	NOR-NORI	
Ni NAIZ HI HAIZ HURA DA GU GARA ZU ZARA ZUEK ZARETE HAIEK DIRA	NIK DUT HIK DUK/N HARK DU GUK DUGU ZUK DUZU ZUEK DUZUE HAIEK DUTE	DITUT DITUK/N DITU DITUGU DITUZU DITUZUE DITUZTE	NIRI ZAIT HIRI ZAIK/N HARI ZAIO GURI ZAIGU ZURI ZAIZU ZUEI ZAIZUE HAIEI ZAIE	ZAIZKIT ZAIZKIK/N ZAIZKIO ZAIZKIGU ZAIZKIZU ZAIZKIZUE ZAIZKIE

Nahi, behar, balio izan aditzak...

Deklinabidea

NOR	NORK	NORI	NOREKIN
Sing. -A Plur. -AK Iz.nag. φ	-AK -EK -K edo EK	-ARI -EI -RI edo I	-AREKIN -EKIN -REKIN edo EKIN
MutilA etorri da MutilAK etorri dira Pili etorri da Mikel etorri da	MutilAK egin du MutilEK egin dute PiliK egia esan du MikelEK egia esan du	MutilARI erori zaio MutilEI erori zaie PiliRI erori zaio Mikell erori zaio	MutilAREKIN nago MutilEKIN nago PiliREKIN nago MikelEKIN nago

Lekuzkoak

	NON	NORA	NONDIK
Singularra	-AN edo -EAN MendiAN nago KomunEAN nago	-RA edo -ERA MendiRA noa KomunERA noa	-TIK edo -ETIK MendiTIK etorri naiz KomunETIK etorri naiz
Izen nagusiak	-N edo -EN GasteizEN nago BilboN nago	-RA edo ERA GasteizERA noa BilboRA noa	-TIK edo ETIK GasteizETIK etorri naiz BilboTIK etorri naiz


Nominalizazioa

-T(z)EA	-T(z)EKO
<ul style="list-style-type: none"> • Gustatzen zait JATEA • Atsegin dut ETORTZEA • Gustuko dut EROSTEA 	<ul style="list-style-type: none"> • ABESTEKO gogoa dut • Euskara IKASTEKO denbora behar da • Liburua IRAKURTZEKO da

KAUSALAK (-ELAKO)	BALDINTZAZKOAK (-(E)Z GERO)
<ul style="list-style-type: none"> • Berandu esnatu NAIZELAKO nago hemen. • Ama gaixorik DAGOELAKO etorri da sendagilea. • Ikasi DUGULAKO gainditu dugu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Telebista IKUSIZ GERO, begiak txikitzen dira. • Asko JANEZ GERO, asko gزندuko zara. • Begiak ITXIZ GERO, amets egingo duzu.

Eta gainera...

Orduak, hilabeteak, asteko egunak, zenbakiak, leku izenak, janari izenak...



Errepaso ariketak

Aldatu testu hau denboraz. Cambia el tiempo verbal del texto.

lehen	egunero	gero
<p>Gu garaiz jaiki gara. Gosaldu eta kalera joan gara. Han lagunak ikusi ditugu eta hitz egin dugu. Gero kafe bat hartu dugu. Ondoren, euskaltegira etorri gara eta asko ikasi dugu; ondo pasa dugu, gainera. Ordu bat eta erdietan bazkaldu dugu eta ondoren musean jokatu dugu. Gaur ere galdu dugu eta kalera triste joan gara.</p>	<p>Gu garaiz ____ gara. Gosaldu eta kalera ____ gara. Han lagunak ____ ditugu eta hitz ____ dugu. Gero kafe bat ____ dugu. Ondoren, euskaltegira ____ gara eta asko ____ dugu; ondo ____ dugu, gainera. Ordu bat eta erdietan ____ dugu eta ondoren musean ____ dugu. Egunero ____ dugu eta kalera triste ____ gara.</p>	<p>Gu garaiz jaiki__ gara. Gosaldu eta kalera joan__ gara. Han lagunak ikusi__ ditugu eta hitz egin__ dugu. Gero kafe bat hartu__ dugu. Ondoren, euskaltegira etorri__ gara eta asko ikasi__ dugu; ondo pasa__ dugu, gainera. Ordu bat eta erdietan bazkaldu__ dugu eta ondoren musean jokatu__ dugu. Gaur ere galdu__ dugu eta kalera triste joan__ gara.</p>

Deklinabidea

galdera	erantzuna
Nor da hori?	Nire lagun____
Nork esan du hori?	Ainhoa____, nire lagun____
Nongoa da Arantxa?	Brinkola____
Non bizi dira lagunak?	Tolosa____, Gasteiz____
Nork egin du hori?	Irakasle____, Ander____
Non dago katua?	Geltoki____, autobus____
Nongoa da Aitor?	Usurbil____, Santander____
Zer ordutan da antzerkia?	20:30____
Zer ordu da orain?	16:26____
Non dago Erandio?	Bizkaia____
Nork esan du hori?	Patxi____, ikasle____
Zenbat ikasle etorri dira?	Bi ikasle____

Lotu esaldiak **-(E)LAKO** kausala erabiliz.
 Une las frases utilizando el **-(E)LAKO** causal.

Aireportuan daude
 Ohera noa
 Etxera joango gara
 Erremotoan nago
 Telebista piztuko dut
 Gaur ez gara lanera joango
 Trena huts egin dut
 Gu kiroldegira joaten gara

Berandu da
 Berandu iritsi naiz geltokira
 Berriak jakin nahi ditugu
 Euria ari du
 Euskara ikasi nahi dut
 Igandea da
 Michaelek hegazkina hartu behar du
 Sasoian egon nahi dugu

Zertarako? **-T(Z)EKO**

Lotu esaldiak. Une las dos frases utilizando el **-T(Z)EKO** final.

Zertarako erosi duzu haragia?
 Zertarako dira guraizeak?
 Zertarako jaiki zara goizeko seietan?
 Zertarako dira betaurrekoak?
 Zertarako egiten duzu kirola?
 Zertarako da konputagailua?

Asadoa egin
 Lanak egin
 Mendira joan
 Ondo ikusi
 Papera moztu
 Sasoian egon

-(e)Z GERO baldintzazkoa. Lotu esaldiak.

Une las dos frases utilizando el condicional **-(e)Z GERO**

Zuk liburu hori irakurri
 Zuk edan
 Gu zinemara joan
 Euskara ikasi
 Zuk koipe asko jan
 Lagunek hori egin
 Ana eta Michael berriro elkartu
 Nik dirua eduki

Gustatuko zaizu.
 Ez gidatu.
 Filma erromantikoa ikusiko dugu.
 Euskal Herrira itzuliko da Michael.
 Kolesterol gaizki edukiko duzu.
 Gu haserretuko gara.
 Oso pozik egongo dira.
 Disko hori erosiko dut.



Ikastaro honetan gauza asko ikasi dituzu: Euskara, Euskal Herriko pertsonaia famatuak, Euskal Herriko geografia, ohiturak...

Gainera, bi lagun ezagutu dituzu: Ana eta Michael. Irakurri haien biografia, ondo etorriko zaizu euskara erreparatzeko. Saioa bukatzeko zure biografia idatziko duzu.

Has aprendido muchas cosas en este curso: Euskara, personajes famosos de Euskal Herria, sus costumbres, un poco de geografía, mucho de gastronomía...

Además, no nos podemos olvidar de Ana y Michael. Lee sus biografías, pues te vendrán muy bien para repasar los contenidos de estas diecisiete lecciones, y, sobre todo, para escribir la tuya.



binaka

Irakurri eta kontatu ikaskideari. Sartu hiru gezur kontakizunean.
Lee la biografía y cuéntasela a tu compañero,-a, pero con tres datos incorrectos.

A ikaslea



Michael Ludwig naiz, Alemaniakoa naiz, Berlinen bizi naiz. 40 urte ditut.

Nire amona bizkaitarra da eta horregatik interesatzen zait euskara eta Euskal Herria ezagutzea. Hizkuntzalaria naiz eta unibertsitatean klaseak ematen ditut.

Bananduta nago, ez dut seme-alabarik eta orain nire txakurtxoarekin bizi naiz. Oso lasaia eta baketsua naiz. Metro bat eta laurogeita bi neurtzen dut. Laurogeita bi kilo naiz. Kirola egitea eta ikustea gustatzen zait. Astean behin igerilekura joaten naiz, eta ia egunero korrika egitea gustatzen zait. Asko irakurtzen dut, egunero egunkaria, aldizkari batzuk eta gauetan, lasai-lasai, literatura irakurtzea maite dut.

Asteburuan lagunekin ateratzen naiz eta batzuetan dantzalekura joaten gara, dantza egitea atsegin dudalako eta oso parrandazalea naizelako.

Ez naiz oso hitzuna, ez dut asko hitz egiten, baina entzutea gustatzen zait. Gitarra jotzea atsegin dut eta askotan bakar-bakarrik abesten dut.

Bidaia asko egiten ditut, baina bidaia lasaiak gustatzen zaizkit, ni ere lasaia naizelako.

Emakumeak maite ditut eta orain libre nago (kar-kar). Euskal Herrian gustuko emakumea aurkituz gero, hemen geratuko naiz. Eta zuek Alemaniara etorri gero, egin niri bisitatxo bat, Berlinen egongo naiz.

Ikastaro honetan gauza asko ikasi dituzu: Euskara, Euskal Herriko pertsonaia famatuak, Euskal Herriko geografia, ohiturak...

Gainera, bi lagun ezagutu dituzu: Ana eta Michael. Irakurri haien biografia, ondo etorriko zaizu euskara erreparatzeko. Saioa bukatzeko zure biografia idatziko duzu.

Has aprendido muchas cosas en este curso: Euskara, personajes famosos de Euskal Herria, sus costumbres, un poco de geografía, mucho de gastronomía...

Además, no nos podemos olvidar de Ana y Michael. Lee sus biografías, pues te vendrán muy bien para repasar los contenidos de estas diecisiete lecciones, y, sobre todo, para escribir la tuya.



Irakurri eta kontatu ikaskideari. Sartu hiru gezur kontakizunean.
Lee la biografía y cuéntasela a tu compañero,-a, pero con tres datos incorrectos.

B ikaslea



Ana Erneta naiz. Argentinarra naiz, Mendozakoa naiz, baina Buenos Airesen bizi naiz. 35 urte ditut.

Familiarekin bizi naiz, ezkongabea naiz. Kazetaria naiz, Buenos Airesko unibertsitate publikoan ikasi dut eta orain *Clarín* egunkarian lan egiten dut.

Askok gustatzen zait nire lana. Metro bat eta hirurogeita hamabi neurtzen dut eta hirurogeita sei kilo naiz.

Bidaia asko egiten ditut, kazetaria naizelako eta izugarri maite dut alde batetik bestera ibiltzea. Afrika, Amerika, Europa eta Asia ezagutzen ditut, Ozeania ez.

Ez dut bizio askorik: erosketak egitea eta bidaiatzea. Ez dut diru asko irabazten, baina dena bidaietan gastatzen dut. Ez dut erretzen eta dantza egitea ez zait gustatzen. Askok irakurtzen dut, bidai liburuak eta zientzia fikzioa maite ditut.

Gurasoekin, amonarekin eta ahizparekin bizi naiz, familiarekin egotea izugarri atsegin dudalako eta amona zoragarria dudalako. Nire ahizpa nire laguna da eta beti nire ondoan egotea gustatzen zaio. Eta loteria tokatuz gero, agian Euskal Herrian geratuko naiz.

Ulermen ariketa

Michael _____ bizi da.

- a- Berlinen
- b- Mendozan
- c- Berlingo

Ana _____ bizi da.

- a- gurasoekin
- b- ahizpekin
- c- gurasoarekin

Anari asko gustatzen zaio _____.

- a- erretzea
- b- igeri egitea
- c- erre

Michael asteburuetan lagunekin _____.

- a- ateratzea
- b- atera da
- c- ateratzen da

Anak Ozeania _____.

- a- ezagutu nahi du
- b- ezagutzen du
- c- ezagutu du

_____ emakumeak maite ditu.

- a- Michael
- b- Anak
- c- Michaellek

Michaeli bidaia _____ gustatzen zaizkio.

- a- mugituak
- b- lasaiak
- c- asko

Anak bizio asko _____.

- a- ez ditu
- b- ditu
- c- gustatzen zaizkio

Ana eta Michael _____.

- a- atzerritarrak dira
- b- berdinak dira
- c- kirola gustatzen zaie




etxerako lana

Orain baduzu etxeko lana. Idatzi zure biografia. Hurrengo saioan ikasgelan irakurriko duzu. Autoebaluazio gisa erabiliko duzu.

Escribe tu biografía. La leerás en la próxima y última sesión. Te servirá de autoevaluación.

Nor naiz ni?



Etixerako lana irakurri



Nor naiz ni?



mintzamena

Gaur Anaren eta Michaelen azken eguna izan da. Zer gertatuko da gaurtik aurrera?
Aukeratu edo asmatu amaiera.

Hoy Ana y Michael se han despedido; pero ¿qué pasará más adelante? ¿Se volverán a reunir? ¿No? Elige una opción e invéntate un final a esta historia.



Ana Maizpidera joango da, lagun asko egingo ditu eta Michaelekin ahaztuko da.



Michael Anari bisitatxo bat egitera joango da Maizpidera eta maitemindu egingo dira.



Bakoitzak bere bidea egingo du, baina lagun onak izango dira.



Ana, konturatu gabe, Michaelekin maiteminduko da eta ez da Maizpidera joango.



Michael ez da Alemaniara itzuliko eta Euskal Herriko Unibertsitatean hasiko da lanean.



Dena utzi eta biak Maizpidera joango dira euskara ikasi nahi dutelako.

asmakizunak

Jarri taldeka eta saiatu asmakizunak asmatzen.
A ver si en grupos podéis resolver estas adivinanzas.



Ezetz asmatu?

Gure pertsonaia alemaniarra da. Urtean 48,2 milioi euro irabazten ditu. Oso kirolari ona da. Kaiser ezizenarekin ezagutzen dugu. Bera oso gorria da, odola gorria du eta jantzia ere bai. Orain erretiratuta dago. Nor da?

Bere herrialdean figura handia da. Erretzea asko gustatzen zaio, lehen puru handiak erretzen zituen, baina orain ez, gainera gaixorik dago. Politikaria da. Hugo Chavezen lagun handia da. Bere herrialdeko komandante ohia da. Nor da?

Gure emakume ilehoria estatubatuarra da. Woody Allenekin eta Martin Scorseserekin lan egin du. 40 urte baditu, baina oraindik sex-simbol handia da. Oscar bat badu. Oso ospetsua da film batean hankak dotore gurutzatu zituelako. Nor da?

Gure pertsonaiak bibote zuria du eta oso gizon atsegina da. Asko gustatzen zaio idaztea eta oso ondo idazten du. Kazetaria eta idazlea da. Bere ezizena Gabo da. Nobel Saria badu. Bere obrarik ezagunena "*Cien años de soledad*" da. Nor da?

Emakume honek urrezko besoak ditu. Txekiarra da baina *Estatu Batuetan* bizi da. Asko maite du kirola egitea. Sexu berekoak gustatzen zaizkio. Oso kirolari ezaguna da. Gaur egun erretiratuta dago. Titulu asko irabazi ditu, open.... Nor da?



Orain, asmatu beste hiru.
Ahora, escribí otras tres.



EUSKALDUNAK ETA ETORKINAK

- Etorkinak ez dira asko hurbiltzen euskarara, gehiengoaren hizkuntza aukeratzen dute; ERDARA.
- Euskaldunek jarrera positiboa eta irekia dute etorkinekin; batez ere, euskaldun abertzaleek.

- Gazte euskaldunak hobeto identifikatzen dira estatu txikietako etorkinekin, sahararrekin, adibidez.
- Etorkinak oso pragmatikoak dira euskararekin, ez dute ulertzen euskara/erdara auzia.
- Etorkinek ez dute euskal musika entzuten.
- Etorkin gazteak ez dira ondo sentitzen hemengo koadrila itxietan.
- Euskaldunek eta etorkinek ez dute espazio komunik.
- Etorkinak herri txikietan harreman hobeak dituzte euskaldunekin.
- Oso herri txikietako etorkinek euskara ikasten dute.
- Euskaldunok historian zehar etorkin asko hartu ditugu Euskal Herrian; batez ere Espainiakoak.
- Euskaldunok ere etorkinak izan gara Ameriketan.

